Kontratuen erregistroa 2023ko abuztuan

KONTRATATUTAKO PERTSONAK

2023ko abuztuan 37.794 pertsona kontratatu dira, joan den urteko abuztuan baino 4.926 gutxiago (% 11,5eko beherakada). Uztailarekin alderatuta ere murriztu egin da kontratatutako pertsonen kopurua; 11.653 pertsona gutxiago kontratatu dira,% 23,6ko beherakada, hain zuzen ere.

• SEXUA

Hilabete honetan 19.260 gizonezko eta 18.534 emakumezko kontratatu dira. Aurreko urteko datuarekin alderatuta, bai emakume zein gizonen kontratazioa murriztu egin da; gizonezkoen kasuan murrizketa apur bat haundiagoa da, % 11,8ko jaitsiera izan baitu (-2.578 gizon) emakumezkoen % 11,2ko beherakadaren aldean (- 2.348 emakume).

• ADINA

Kontratatutako pertsonen batez besteko adina 35,40 da, eta baxuagoa da gizonena (34,64) emakumezkoena baino (36,19). Arabakoak dira kontratatutako pertsona gazteenak (34,75), eta Bizkaikoak, aldiz, zaharrenak (35,94).

Kontratatutako langile gazteenak, batez beste, laguntza teknikariak dira; horien batez besteko adina 30,83 urtekoa da. Zaharrenak, berriz, zuzendaritza lanetan kontratatutakoak dira; batez besteko adina 43 urtekoa da. Lanaldi partzialean kontratatutakoak lanaldi osoan kontratatutakoak baino gazteagoak dira (34,38 eta 35,96 urte, hurrenez hurren). Aldea haundiagoa da sexuaren arabera; lanaldi partzialeko emakumeak zaharragoak dira 35,86 urte baitituzte gizonezkoen 31,79ren aldean. Kontratuaren iraupenaren inguruan, aldi baterako kontratatuko pertsonak kontratu mugagabeak izan dituztenak baino gazteagoak dira (35,39 vs 35,43).

• JATORRIA

2023ko abuztuan kontratatutako pertsonen % 21,3k atzerriko nazionalitatea dute; joan den urteko ehunekoa baino 2,6 puntu altuagoa. Kontratatutako pertsona atzerritarren % 55ek Latinoamerikako herrialde bateko nazionalitatea du, % 13,1ek Afrikako iparraldeko herrialde batekoa, % 11,6k Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialderen batekoa, % 6,9k Asiakoa, %6,7k Europako Erkidegokoa ez den herrialderen batekoa eta, azkenik, % 5,6k Europako Erkidegoko herrialderen batekoa. Bertakoak atzerritarrak baino gazteagoak dira (35,25 eta 35,94 urte, hurrenez hurren). Kontratazio-bolumen jakin bat duten atzerritarren artean, Afrikako iparraldekoak dira gazteenak (34,54 urte) eta Saharaz azpiko Afrikako herrialderen batekoak zaharrenak (37,84 urte).

Azken hilabetean, jatorri guztietako pertsonen kopurua murriztu da. Balio absolutuetan gehien murriztu den pertsona-taldea Latinoamerikatik etorritakoena izan da, 360 pertsona gutxiago kontratatu baitira (% 7,5 gutxiago); balio erlatiboetan, aldiz, beherakadarik handiena Europar Erkidegoko herrialderen batetik etorritako taldean izan da, % 19,4ko jaitsierarekin (108 pertsona gutxiago kontratatu dira).

Azken urteari erreparatuz, kontratazio esanguratsua duten jatorri guztietan murriztu da kontratatutako pertsonen kopurua Latinoamerikatik eta Asiatik etorritakoen artean izan ezik; ho-

rien kasuan, 279 eta 52 pertsonatan igo da kontratazioa, hurrenez hurren. Murrizketa handiena, bai balio absolutu zein erlatiboetan, Europar Erkidegokoa ez den herrialde batetik etorritakoek jasan dute, % 21,1 jaitsi baitira (144 pertsona gutxiago).

• PRESTAKUNTZA-MAILA

Kontratatutako pertsonen % 46,2k oinarrizko prestakuntza maila du –gehienez ere derrigorrezko hezkuntza amaitu du–, % 23,3k batxilergoko ikasketak egin ditu, % 15,4k LH-koak eta % 14,7k unibertsitateko ikasketak.

Hileko erreferentzian, profil guztietako pertsonen kontratazioak egin du behera. Gehien murriztu direnak, balio absolutu zein erlatiboetan, batxilergoko ikasketak dituztenak izan dira 3.963 pertsona gutxiago kontratatu baitira (% 31ko jaitsiera).

Urteko erreferentzian ere, ikasketa mota guztietako kontratazioa murriztu da. Beherakada handiena, balio absolutuetan, derrigorrezko ikasketak dituzten pertsonen kontratazioan gertatu da (-2.068 pertsona gutxiago kontratatu dira, % 10,6ko murrizketa); balio erlatiboetan, aldiz, LHko ikasketak dituztenen kontratazioak jasan du beherakada handiena (% 13,6 eta 915 pertsona gutxiago).

KONTRATUEN KOPURUAK

2023ko abuztuan zehar kontratazio kopurua 48.532 izan da EAEn, horietatik 10.934 (% 22,5) mugagabeak izan dira. Kontratu mugagabeen ehunekoak uztailean eman zuen beheraka mantendu da, baina handia izaten jarraitzen du da azken urteetako bilakaerarekin alderatuta. Datu honek, 2022ko joera berresten du eta esan daiteke iaz onartutako lan-erreformak ekarri duen kalitate handiagoko kontratazioren islada dela. Kontratu mugagabea izan duten gizonezkoen kopurua haundiagoa da emakumezkoen aldean (% 27,6 eta % 23,3, hurrenez hurren).

Kontratazioa % 23,7 murriztu da aurreko hilabetearekiko (15.057 kontratu gutxiago); aurreko urtearekin alderatuta ere, murriztu egin da (% 13,2 eta 7.374 kontratu gutxiago).

• JARDUERA EKONOMIKOA

Joan den hilabetearekin alderatuta, kontratazioak behera egin du jarduera gehienetan. Jaitsierarik handienak aisialdiko jardueretan (-2.017), hezkuntzan (-1.857) eta merkataritzan (-1.815) izan dira. Aldiz, gorakada handiena ur-jardueretan izan da, 201 kontratu gehiagorekin.

Iazko datuekin alderatuta ere, kontratazioak behera egin du jarduera gehienetan. Jaitsiera nabarmenenak profil hauen kontratazioan gertatu dira: garraioa (-1.912), ostalaritza (-1.150) eta manufaktura-industria (-991). Aldiz, kontratazioa gehien hazi diren jarduerak, administrazio publikoa (+193) eta lehen sektorekoak (+135) dira.

• OKUPAZIOA

Hil arteko erlazioan, kontratazioak behera egin du okupazio guztietan, lehen sektoreko kualifikatuetan izan ezik, 11 kontratu gehiago izan baitira. Kontratazioak, bai balio absolutu zein erla-

tiboetan, laguntzako teknikarien profilean egin du behera gehien, 4.654 kontratutan hain zuzen ere (% 54,7ko jaitsiera).

Iazko abuztuaren aldean, kontratazioak behera egin du okupazio gehienetan; salbuespenak operadoreak (+38, % 1,2 gehiago) eta lehen sektoreko kualifikatuak (+33, % 20,2 gehiago) dira. Beste aldean, balio absolutuetan, kontratazioa kualifikatu gabekoetan jaitsi da gehien (-2.670 kontratu, % 15,2 gutxiago); balio erlatiboetan, aldiz, jaitsierarik handiena industriako kualifikatuetan gertatu da, % 27,9ko jaitsierarekin (-977 kontratu).

• KONTRATAZIO-MOTA

Hilabete honetan, aurreko hilabeteetan bezala, kontratu mugagabeen portzentaia handia nabarmendu behar da, 2022ra arte % 10etik behera egon ohi baitziren. Tasa horiek pentsarazten digute lan-erreformak bere fruituak ematen dituela kontratu mugagabeen sendotasuna handitzerakoan; izan ere, historikoki, urtean zehar kontratu mugagabeen kopuru esanguratsu bat sinatu arren, ez zuten lortzen aldi baterako kontratua zuten okupatuen kontratu-harremana finkatzea.

2023ko abuztuan sinatutako kontratuen % 35,1 lanaldi partzialekoak dira, % 46 emakumeen kasuan eta % 23,9 gizonenan. Kontratazio mota horren arazorik handiena da, gehienbat, nahigabekoa dela, eta agerian uzten du ezarritako kontratu-harremanaren kalitate eskasa. Kontratu mugagabeen % 27,7 lanaldi partzialekoak dira.

Honako hauek dira lanaldi partzialeko kontratazioaren ehuneko handiena duten jarduera ekonomikoak: ostalaritza (% 55,4), merkataritza (% 48,6) eta administrazio publikoa (% 49,9). Okupazio-profilen arabera, lanaldi partzialeko kontratazioan gehien izan duen profila zerbitzuetako langileena izan da (% 49,1), eta gutxiena, lehen sektoreko kualifikatuen profila (% 4,1).

• LURRALDE HISTORIKOAK

Lurralde historikoei dagokionez, sinatutako kontratuen lanpostuen % 19,5 Araban dago, % 47,2 Bizkaian eta gainerako % 33,4 Gipuzkoan.

Hilabete honetan, Araban 3.315 kontratu gutxiago sinatu dira (% 24,9ko jaitsiera); Bizkaian 8.199 gutxiago (% 26,4ko beherakada) eta Gipuzkoan 3.723 kontratu gutxiago sinatu dira (% 18,7 ko jaitsiera).

Aurreko urtearen aldean, Gipuzkoan 1.458 kontratu gutxiago sinatu dira (% 8,3ko jaitsiera), Lurralde Historiko hau da du jaitsierarik txikiena izan duena bai ehuneko zein balio absolutuetan; ondoren Bizkaian % 15,2 jaitsi da kontratazioa (4.099 kontratu gutxiago) eta, azkenik, Araban, 1.817koa izan da beherakada (% 16,1eko jaitsiera).

• BESTEREN ZERBITZUAN JARTZEKO KONTRATUAK (ABLE)

2023ko abuztuan sinatutako kontratuen % 22,2 aldi baterako laneko enpresen bitartez egin dira. ABLEen bitartez egindako kontratazioa askoz ohikoagoa da gizonetan emakumeetan baino. Gizonetan, kontratuen % 29,7 horrelako enpresa batek egindakoa izan da, eta emakumeetan, berriz, kontratazioen % 13,8 bakarrik egin du ABLE batek.

Kontratuen erregistroa 2023ko abuztuan

Aurreko hilabetearekin alderatuta, aldi baterako laneko enpresen bitartez egindako kontratuak % 17,2 murriztu dira; 2022ko abuztuaren alderatuta, % 20,9koa izan da beherakada.



Kontratuen erregistroa 2023ko abuztuan

		Abu-2023	Uzt-2023	Abu-2022	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Mota	Mugagabea	10.934	14.444	13.013	-3.510	-24,30	-2.079	-16,0
	Aldi baterakoa	37.598	49.145	42.893	-11.547	-23,50	-5.295	-12,3
	Guztira	48.532	63.589	55.906	-15.057	-23,68	-7.374	-13,2
	Mugagabeen %	22,5%	22,7%	23,3%	-0,19		-0,75	
Sexua	Gizona	24.568	32.331	28.427	-7.763	-24,01	-3.859	-13,6
	Emakumea	23.964	31.258	27.479	-7.294	-23,33	-3.515	-12,8
	Guztira	48.532	63.589	55.906	-15.057	-23,68	-7.374	-13,2
	Emakumeen %	49,4%	49,2%	49,2%	0,22		0,23	
Mugagabea	Gizona	5.974	7.853	6.865	-1.879	-23,93	-891	-13,0
	Emakumea	4.960	6.591	6.148	-1.631	-24,75	-1.188	-19,3
	Guztira	10.934	14.444	13.013	-3.510	-24,30	-2.079	-16,0
Aldi baterakoa	Gizona	18.594	24.478	21.562	-5.884	-24,04	-2.968	-13,8
	Emakumea	19.004	24.667	21.331	-5.663	-22,96	-2.327	-10,9
	Guztira	37.598	49.145	42.893	-11.547	-23,50	-5.295	-12,3
Guztira	Gizona	24.568	32.331	28.427	-7.763	-24,01	-3.859	-13,6
	Emakumea	23.964	31.258	27.479	-7.294	-23,33	-3.515	-12,8
	Guztira	48.532	63.589	55.906	-15.057	-23,68	-7.374	-13,2
Mugagabeen tasa	Gizona	24,3%	24,3%	24,1%	0,03		0,17	
	Emakumea	20,7%	21,1%	22,4%	-0,39		-1,68	
	Guztira	22,5%	22,7%	23,3%	-0,19		-0,75	
Lanaldi partziala	Mugagabea	3.384	4.411	4.249	-1.027	-23,28	-865	-20,4
	Aldi baterakoa	13.460	18.287	15.051	-4.827	-26,40	-1.591	-10,6
	Beste batzuk	31.688	40.891	36.606	-9.203	-22,51	-4.918	-13,4
	Guztira	48.532	63.589	55.906	-15.057	-23,68	-7.374	-13,2
	LP tasa	34,7%	35,7%	34,5%	-0,99		0,18	
Lanaldi partziala	Gizona	6.221	8.139	6.930	-1.918	-23,57	-709	-10,2
	Emakumea	10.623	14.559	12.370	-3.936	-27,03	-1.747	-14,1
	Guztira	16.844	22.698	19.300	-5.854	-25,79	-2.456	-12,7
	Gizonen tasa	25,3%	25,2%	24,4%	0,15		0,94	
	Emakumeen tasa	44,3%	46,6%	45,0%	-2,25		-0,69	
	Tasa guztira	34,7%	35,7%	34,5%	-0,99		0,18	
Prestakuntzakoak	Prestakuntzakoak	36	205	32	-169	-82,44	4	12,5
	Beste batzuk	48.496	63.384	55.874	-14.888	-23,49	-7.378	-13,2
	Guztira	48.532	63.589	55.906	-15.057	-23,68	-7.374	-13,2
	Prestakuntzakoak (%)	0,1%	0,3%	0,1%	-0,25		0,02	
L. historikoa	Araba	9.446	12.581	11.263	-3.135	-24,92	-1.817	-16,1
	Bizkaia	22.884	31.083	26.983	-8.199	-26,38	-4.099	-15,2
	Gipuzkoa	16.202	19.925	17.660	-3.723	-18,69	-1.458	-8,3
	EAE	48.532	63.589	55.906	-15.057	-23,68	-7.374	-13,2
Gizonak	Lehen sektorea	432	465	312	-33	-7,10	120	38,5
	Erauzketa-industriak	6	9	17	-3	-33,33	-11	-64,7
	Manufaktura-industriak	4.774	6.187	5.494	-1.413	-22,84	-720	-13,1
	Energia	10	5	2	5	100,00	8	400,0
	Ura	575	367	534	208	56,68	41	7,7
	Eraikuntza	1.279	1.705	1.553	-426	-24,99	-274	-17,6
	Merkataritza	2.673	3.489	2.972	-816	-23,39	-299	-10,1
	Garraioa	2.847	3.457	4.142	-610	-17,65	-1.295	-31,3
	Ostalaritza	2.866	3.507	3.336	-641	-18,28	-470	-14,1
	Informazioa eta komunikazioa	898	1.450	888	-552	-38,07	10	1,1
	Finantzak eta aseguruak	133	122	82	11	9,02	51	62,2
	Higiezinen sektorea	20	28	20	-8	-28,57	0	0,0
	Zientifikoak eta teknikoak	556	1.025	716	-469	-45,76	-160	-22,3
	Administraziokoak	2.899	3.688	3.156	-789	-21,39	-257	-8,1
	Administrazio publikoa	428	548	285	-120	-21,90	143	50,2
	Hezkuntza	330	777	459	-447	-57,53	-129	-28,1
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	1.453	1.634	1.488	-181	-11,08	-35	-2,4

Kontratuen erregistroa 2023ko abuztuan

		Abu-2023	Uzt-2023	Abu-2022	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
	Arte- eta jolas-jarduerak	2.013	3.214	2.551	-1.201	-37,37	-538	-21,1
	Beste zerbitzu batzuk	290	547	306	-257	-46,98	-16	-5,2
	Etxeetako jarduerak	85	107	114	-22	-20,56	-29	-25,4
	Lurraldez kanpoko erakundeak	1	0	0	1		1	
	Guztira	24.568	32.331	28.427	-7.763	-24,01	-3.859	-13,6
Emakumeak	Lehen sektorea	49	56	34	-7	-12,50	15	44,1
	Erauzketa-industriak	0	1	5	-1	-100,00	-5	-100,0
	Manufaktura-industriak	1.640	2.013	1.911	-373	-18,53	-271	-14,2
	Energia	6	8	3	-2	-25,00	3	100,0
	Ura	51	58	53	-7	-12,07	-2	-3,8
	Eraikuntza	105	138	112	-33	-23,91	-7	-6,3
	Merkataritza	3.492	4.491	3.996	-999	-22,24	-504	-12,6
	Garraioa	892	1.092	1.509	-200	-18,32	-617	-40,9
	Ostalaritza	3.569	4.703	4.249	-1.134	-24,11	-680	-16,0
	Informazioa eta komunikazioa	709	934	554	-225	-24,09	155	28,0
	Finantzak eta aseguruak	181	165	134	16	9,70	47	35,1
	Higiezinen sektorea	68	43	37	25	58,14	31	83,8
	Zientifikoak eta teknikoak	500	927	721	-427	-46,06	-221	-30,7
	Administraziokoak	3.855	4.099	4.154	-244	-5,95	-299	-7,2
	Administrazio publikoa	292	387	242	-95	-24,55	50	20,7
	Hezkuntza	831	2.241	1.261	-1.410	-62,92	-430	-34,1
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	5.383	5.960	5.588	-577	-9,68	-205	-3,7
	Arte- eta jolas-jarduerak	1.054	1.870	1.197	-816	-43,64	-143	-11,9
	Beste zerbitzu batzuk	408	972	492	-564	-58,02	-84	-17,1
	Etxeetako jarduerak	879	1.097	1.223	-218	-19,87	-344	-28,1
	Lurraldez kanpoko erakundeak	0	3	4	-3	-100,00	-4	-100,0
	Guztira	23.964	31.258	27.479	-7.294	-23,33	-3.515	-12,8
Guztira	Lehen sektorea	481	521	346	-40	-7,68	135	39,0
	Erauzketa-industriak	6	10	22	-4	-40,00	-16	-72,7
	Manufaktura-industriak	6.414	8.200	7.405	-1.786	-21,78	-991	-13,4
	Energia	16	13	5	3	23,08	11	220,0
	Ura	626	425	587	201	47,29	39	6,6
	Eraikuntza	1.384	1.843	1.665	-459	-24,91	-281	-16,9
	Merkataritza	6.165	7.980	6.968	-1.815	-22,74	-803	-11,5
	Garraioa	3.739	4.549	5.651	-810	-17,81	-1.912	-33,8
	Ostalaritza	6.435	8.210	7.585	-1.775	-21,62	-1.150	-15,2
	Informazioa eta komunikazioa	1.607	2.384	1.442	-777	-32,59	165	11,4
	Finantzak eta aseguruak	314	287	216	27	9,41	98	45,4
	Higiezinen sektorea	88	71	57	17	23,94	31	54,4
	Zientifikoak eta teknikoak	1.056	1.952	1.437	-896	-45,90	-381	-26,5
	Administraziokoak	6.754	7.787	7.310	-1.033	-13,27	-556	-7,6
	Administrazio publikoa	720	935	527	-215	-22,99	193	36,6
	Hezkuntza	1.161	3.018	1.720	-1.857	-61,53	-559	-32,5
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	6.836	7.594	7.076	-758	-9,98	-240	-3,4
	Arte- eta jolas-jarduerak	3.067	5.084	3.748	-2.017	-39,67	-681	-18,2
	Beste zerbitzu batzuk	698	1.519	798	-821	-54,05	-100	-12,5
	Etxeetako jarduerak	964	1.204	1.337	-240	-19,93	-373	-27,9
	Lurraldez kanpoko erakundeak	1	3	4	-2	-66,67	-3	-75,0
	Guztira	48.532	63.589	55.906	-15.057	-23,68	-7.374	-13,2
Gizonak	<>	0	0	1	0		-1	-100,0
	Zuzendaritza	53	95	57	-42	-44,21	-4	-7,0
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	2.200	2.864	2.435	-664	-23,18	-235	-9,7
	Teknikariak eta laguntza emateko profesionalak	2.270	4.755	2.350	-2.485	-52,26	-80	-3,4
	Administrazioko langileak	1.288	1.694	1.710	-406	-23,97	-422	-24,7
	Zerbitzuetako kualifikatuak	5.524	7.037	6.360	-1.513	-21,50	-836	-13,1

Kontratuen erregistroa 2023ko abuztuan

		Abu-2023	Uzt-2023	Abu-2022	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
	Oinarrizko kualifikatuak	177	170	153	7	4,12	24	15,7
	Industriako kualifikatuak	2.259	3.245	3.179	-986	-30,39	-920	-28,9
	Operadoreak	2.841	3.648	2.814	-807	-22,12	27	1,0
	Kualifikatu gabeak	7.956	8.823	9.368	-867	-9,83	-1.412	-15,1
	Guztira	24.568	32.331	28.427	-7.763	-24,01	-3.859	-13,6
Emakumeak	<>	0	0	0	0,00		0,00	
	Zuzendaritza	44	63	53	-19	-30,16	-9	-17,0
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	3.005	4.094	3.589	-1.089	-26,60	-584	-16,3
	Teknikariak eta laguntza ema-teko profesionalak	1.583	3.752	1.653	-2.169	-57,81	-70	-4,2
	Administrazioko langileak	1.813	2.441	2.395	-628	-25,73	-582	-24,3
	Zerbitzuetako kualifikatuak	9.871	12.497	10.846	-2.626	-21,01	-975	-9,0
	Oinarrizko kualifikatuak	19	15	10	4	26,67	9	90,0
	Industriako kualifikatuak	271	373	328	-102	-27,35	-57	-17,4
	Operadoreak	442	600	431	-158	-26,33	11	2,6
	Kualifikatu gabeak	6.916	7.423	8.174	-507	-6,83	-1.258	-15,4
	Guztira	23.964	31.258	27.479	-7.294	-23,33	-3.515	-12,8
Guztira	<>	0	0	1	0		-1	-100,0
	Zuzendaritza	97	158	110	-61	-38,61	-13	-11,8
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	5.205	6.958	6.024	-1.753	-25,19	-819	-13,6
	Teknikariak eta laguntza ema-teko profesionalak	3.853	8.507	4.003	-4.654	-54,71	-150	-3,7
	Administrazioko langileak	3.101	4.135	4.105	-1.034	-25,01	-1.004	-24,5
	Zerbitzuetako kualifikatuak	15.395	19.534	17.206	-4.139	-21,19	-1.811	-10,5
	Oinarrizko kualifikatuak	196	185	163	11	5,95	33	20,2
	Industriako kualifikatuak	2.530	3.618	3.507	-1.088	-30,07	-977	-27,9
	Operadoreak	3.283	4.248	3.245	-965	-22,72	38	1,2
	Kualifikatu gabeak	14.872	16.246	17.542	-1.374	-8,46	-2.670	-15,2
	Guztira	48.532	63.589	55.906	-15.057	-23,68	-7.374	-13,2
ABLE	Gizonak	5.727	6.879	7.278	-1.152	-16,75	-1.551	-21,3
	Emakumeak	2.650	3.233	3.315	-583	-18,03	-665	-20,1
	Guztira	8.377	10.112	10.593	-1.735	-17,16	-2.216	-20,9
Pertsona-kopurua	Gizonak	19.260	25.286	21.838	-6.026	-23,83	-2.578	-11,8
	Emakumeak	18.534	24.161	20.882	-5.627	-23,29	-2.348	-11,2
	Guztira	37.794	49.447	42.720	-11.653	-23,57	-4.926	-11,5
	Derrigorrezko hezkuntzako ikasketak	17.458	20.883	19.526	-3.425	-16,40	-2.068	-10,6
	Batxilergoa	8.806	12.769	10.119	-3.963	-31,04	-1.313	-13,0
	LHko ikasketak	5.821	8.132	6.736	-2.311	-28,42	-915	-13,6
	Unibertsitate-ikasketak	5.547	7.431	6.121	-1.884	-25,35	-574	-9,4
	Atzerritarra	8.047	8.903	8.003	-856	-9,61	44	0,5
	Bertakoa	29.747	40.544	34.717	-10.797	-26,63	-4.970	-14,3
	<>	21	31	32	-10	-32,26	-11	-34,4
	Aberrigabea	50	44	61	6	13,64	-11	-18,0
	Europako Erkidegoa	449	557	533	-108	-19,39	-84	-15,8
	Erkidegokoa ez den Europa	538	650	682	-112	-17,23	-144	-21,1
	Txina	97	116	97	-19	-16,38	0	0,0
	Japonia	6	7	3	-1	-14,29	3	100,0
	Asiako beste herrialde bat	452	466	403	-14	-3,00	49	12,2
	Saharaz hegoaldeko Afrika	935	1.068	960	-133	-12,45	-25	-2,6
	Afrikako iparraldea	1.053	1.165	1.073	-112	-9,61	-20	-1,9
	Ipar Amerika	16	9	9	7	77,78	7	77,8
	Erdialdeko eta Hego Amerika	4.426	4.786	4.147	-360	-7,52	279	6,7
	Ozeania	4	4	3	0	0,00	1	33,3
	Atzerritarrak guztira	8.047	8.903	8.003	-856	-9,61	44	0,5